

PSIKOMOTRIZITATEA ETA EBALUAZIOA HAUR HEZKUNTZAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Chorro Ruiz, Soraya.

ZUZENDARIA: Urrutia Gutierrez, Saioa.

2019-2020 ikasturtea

LABURPENA

Lan hau psikomotrizitate-saio batean ebaluazio ona zein garrantzitsua den ikusarazteko ahalegina da. Horretarako, garrantzitsua da ondo jakitea zer den psikomotrizitatea, zer helburu dituen eta zer korrante dauden gai horren inguruan. Bestalde, Aucouturier-en saio bat, dauden faseak eta psikomotrizitate-saio batean aurki daitezkeen bi espazioak (jolas sinbolikoa eta motrizitatea) aztertu dira, behaketa-taula on bat egin ahal izateko eta, horrela, haurrak ondo ebaluatu ahal izateko. Hori praktikan jarri da 5 urteko gela batean, eta behatu egin da. Behaketa honi eta behaketa taulari esker, psikomotrizitate klase batean egoteko estilo eta portaera ezberdinak ikusi ahal izan dira. Hori, saiakera bat besterik ez bada ere, ikus daiteke zein garrantzitsua den psikomotrizitate-klase batean haurrak ondo ebaluatzea, eta taula horrek nolakoa izan behar den, ordubete ebaluatze denbora eman dezan. Laburbilduz, psikomotrizitate-saio batek izan behar dituen faseak ondo jakin behar dira, eta ondo ebaluatu. Azken finean, hori oso garrantzitsua izan daiteke haurren garapenerako eta zenbait alderdi hobetzeko.

Hitz-klabeak: Psikomotrizitatea, Psikomotrizitate-saioa, Jolas sinbolikoa, Motrizitatea, Ebaluazioa, Behaketa-taula.

RESUMEN

Este trabajo es un intento de hacer ver lo importante que es una buena evaluación en una sesión de psicomotricidad. Para ello, es importante saber bien qué es la psicomotricidad, sus objetivos y las diferentes corrientes que hay sobre este tema. Por otro lado, se ha analizado una sesión de Aucouturier, de las fases que hay y de los dos espacios que se pueden encontrar en una sesión de psicomotricidad (juego simbólico y motricidad), para poder hacer una buena tabla de observación y así poder evaluar bien a los niños. Esto, se ha puesto en práctica en una clase de 5 años y se ha observado. Gracias a esta observación y a la tabla de observación, se ha podido ver los diferentes estilos y los diferentes comportamientos a la hora de estar en una clase de psicomotricidad. Esto, aunque es solo un intento, se puede ver lo importante que es evaluar bien a los niños en una clase de psicomotricidad y el cómo tiene que ser esa tabla para que dé tiempo a evaluar en una hora. En conclusión, hay que saber bien las fases que tiene que tener una sesión de psicomotricidad y saber evaluarla bien. Al fin y al cabo, esto puede ser muy importante para el desarrollo de los niños y para cómo mejorar algunos aspectos.

Palabras clave: Psicomotricidad, Una sesión de psicomotricidad, Juego simbólico, Motricidad, Evaluación, Tabla de evaluación.

AURKIBIDEA

1- Sarrera.....	3
2- Marko teorikoa.....	5
2.1 Psikomotrizitatea. Definizioa eta helburuak.....	5
2.1.1 Korronteak (Pick-Bayer-Le Bouche-Acouturier).....	8
2.1.2 Helduaren zeregina.....	11
2.1.2.1 Behaketa.....	12
2.2 Psikomotrizitateko saioa.....	13
2.3 Ebaluazioa/ behaketa.....	19
3- Helburuak.....	21
4- Metodologia.....	22
4.1 Lagina.....	22
4.2 Tresna.....	22
4.2.1 Diseinua.....	23
4.3 Prozedura.....	23
5- Esku hartzearen ebaluazioa.....	24
5.1 Behaketa taularen ebaluazioa.....	24
5.2 Behaketa taula hobetzeko alderdiak.....	26
6- Ondorioak.....	30
6.1 Lanaren ondorioak.....	30
7- Hobekuntza eta etorkizunerako proposamenak.....	31
8- Erreferentzia bibliografikoak.....	33
9- Eranskinak.....	36

1- SARRERA

Lan honi hasiera emateko, historian zehar abiatu behar da, eta autore batzuek psikomotrizitatea eta giza garapenari buruz dituzten iritzi ezberdinak ikusi. Duela urte askotatik korrante ezberdinak daude gai honen inguruan, eta autore bakoitzak bere ikuspuntua dauka.

Horregatik, garrantzitsua da jakitea, psikomotrizitatean, gorputza atal handia dela eta baita horrekin egiten diren mugimendu ezberdinak ere. Horregatik, ondo dago gorputzaren definizioa zehaztea. Gorputza, psikomotrizitatearen zati garrantzitsua baita.

Lehen esan bezala, beti egon dira korrante desberdinak gai honi buruz eta kultur eta gizarte guztietan errealitate hau agertu egin da. Gorputzaren gurtza, garrantzi biologikotik eta irudikapenetik haratago, ia erritu, zeremonia, ospakizun eta sakrifizio guztietan agertzen da, historiaurretik hasi eta gaur egunera arte (Polentinos, 2006).

Historikoki tradizio dualista bat dago; hau da, gizabanakoa bi errealitate desberdinez osatuta agertzen da, gorputza eta arima. Arima da gure alde jainkotiarra eta benetan gizaki egiten gaituena. Arima gorputza baino lehenago sortua izan da eta hilezkorra dugu. Ez da aldagarria eta ez dago zentzumenen munduen estimuluen menpe. Gorputza jaioa eta hilkorra da: aldagarria, beraz. Izan ere arimak ematen dio bizia gorputzari. Arima da bizi-printzipioa (Platon). Polentinosek (2006) aipatzen duen bezala, Freudek, ibilbide historiko horren une erabakigarria NIA GORPUTZ-NIA gisa definitu zueneko da. Gorputza eduki psikikoa daukan edukiontzi gisa ulertzen da, eboluzioaren prozesua zehazten duen dialektika interaktiboan. Garapenaren faseak ezartzen dira haurra gorputz-atal desberdinei garrantzia emanez doan neurrian: aho-aroa, uzki-aroa.

Descartesentzat (Polentinos, 2006) aldiz, gorputza arrazoiares tresna baino ez dela esaten zuen: "Espiritua eta arima goragoko errealitateak dira, pentsamendua sortzen dutenak, eta gorputza espiritua mantentzeko mekanismo hutsa da".

Ikusten denez, gorputzari buruzko teoria asko daude, baina, bestalde, ezagutzaren gaia, oso garrantzitsua da psikomotrizitatean ere.

Piagetentzat, ezagutzaren antolaketa ekintzaren arabera eraikitzen da; dinamika aktiboaren eta jokabideak errepikatzearen bidez, haurrak mundua bereganatzen eta egoeretara egokitzen joango da; hori izango da adimenaren hasiera.

Beste alde batetik, Wallonek, Piageten teoriaren arabera oinarrituta, motrizitatea garatu bezain pronto psikismoa haurrengan garatzen dela esaten zuen. Honek garrantzi

handia ematen zion mugimenduari, hau haurrari harremanak izaten, bere burua garatzen, mundua ikasten eta bere nortasuna eratzen laguntzen baituelako; Hau da, haurrak ingurunearekin erlazionatzeko beharrak planteatu zituen. Vigotskyk baita gizakiak inguratzen duen munduari zentsua ematen dio etengabeko interakzioen bidez ere esaten zuen. Giza garapena, beste pertsonekin partekatutako prozesua da.

Azkenik, Le bouche, Bayer, Aucouturier eta Lapierrrek oinarri teorikoak ipini zituzten gizabanakoa batasun psikosomatiko gisa hartzen duen ideian oinarritutako pedagogia aplikatzeko. Aucouturierrek heziketa psikomotorra ekintza motorrean oinarritutako prozesua sortu zuen. Honetan eta gorputzaren mugimendu espontaneoaren bidez, haurrak oinarrizko nozioak ikas ditzakete NIAren eta munduaren egituraketa ahalbidetuz.

Teoria honekin jarraituz, Gifre eta Esteban-en (2012) artikuluan Bronfenbrenner teoriara jotzen dute. Bronfenbrenner ingurugiroak duen umearenganako eraginaren arabera, honen garapena oso desberdina izan daitekeela esaten zuen eta pertsonak mundua gero eta hobeto ezagutzen duen heinean eboluzionatu ahal izango duela.

Denboran pixka bat bidaiatu ondoren, esan behar da gaur egun ere psikomotrizitateari buruz eta haurtzaroan duen garrantziari buruz hitz egiten duten egile asko daudela, adibidez, Vizcarrak (2007) dioen bezala,

“Haur Hezkuntzako curriculumean motrizitatea garatzen denean, psikomotrizitatea da metodologiarik ezagunena. Esan beharrik ere ez dago berez motrizitateari dagozkion eduki eta gai ugari lantzen direla etapa horretan; psikomotrizitatea da ezagunena, baina beste eduki batzuk ere badaude, jolasak, gorputz-adierazpena, ipuin motorrak, ikaskuntza-inguruneak, gaitasun motorren zirkuituak... Etapa horretan, haurrak bere burua ezagutzea eta balioestea nahi dugu, bere gaitasun pertsonalak erabiltzeko ahalmenak jorratuz. Jasotako esperientzien arabera, bere nortasuna eratuz joango da.”

Psikomotrizitatearen kontu hori guztia, horren zati handi bat klaseetan lantzen da, eta horregatik Polentinos eta Herran (1989) artikuluan agertzen den bezala;

“Guretzat, faktore biologiko, gorporal, psikologiko, afektibo, sozial, etab.-en elkar-erlaziozko prozesu bati esker eratzen da haurraren nortasuna, eta haurraren bizipen guztiek dute eragina elkar-erlazioen sistema global horren garapenean, eskola delarik erlazioa horien erantzule. Horretarako, aukera batzuk egin beharrean dago eskola, haurraren bizitza zati berezietan banatzeko joera apurtu eta proposamen metodologiko koherentean (haurraren) lana bi mailatan sistematizatuz ikasgela, psikomotrizitate-gela.”

Horregatik, faktore asko hartu behar ditugu kontuan, eta oso ondo jakin behar dugu nola landu hurrekin alderdi guzti horiek.

Sarrera honekin amaitzeko, garrantzitsua da psikomotrizistaren rola aipatzea. Izan ere, faktore hori oso garrantzitsua da kontuan hartzeko eta Sánchez & Llorca (2008) ondo esaten duten bezala, psikomotrizistaren rola da praktika psikomotorraren oinarrietako bat. Beste diziplina batzuetatik desberdina, haurra, hezitzailea eta hezkuntza-harremana ulertzeko moduagatik. Prestakuntzaren esparru horren barruan funtsezkoa da haurren adierazkortasuna eta lan honen oinarri teorikoak ulertzea, eta diziplina horren adierazkortasunera eta eredu teorikora egokitutako erantzuna ematea.

Horretarako, garrantzitsua da behaketa, eta jakitea zein garrantzitsua den behatzea. Chokler (1999) artikuluan ondo azaltzen du behatzearen garrantzia; hau da, haurrari laguntzeko proiektu bat egiterakoan, zein da behaketa baten helburua? Zalantzarik gabe, haurraren historia sakona atzematea, hau da, haren berraseguratzeko afektiboaren historia, eta haren heltze, sozializazio eta ikaskuntza blokeatzen duten elementuak aurkitzea, laguntza proiektu kolektibo bat eraikitzeko.

Lanean dauden oztopoak ulertzeko, beharrezkoa da hezitzaileak beste orientazio bat ematea eskolan, zailtasunak dituen haurra behatzeko, bai sentsorimotorrean eta afektiboan, bai funtzionamendu kognitiboan eta logikoan. Beharrezkoa da behaketa-estrategia eta -gailu bat sortzea erreferentzia puntuak, jarduteko plazeraren disfuntzionamenduaren adierazle esanguratsuak eta pentsatzeko plazeraren disfuntzionamenduaren adierazle esanguratsuak atzemateko.

2- MARKO TEORIKOA

2.1 Psikomotrizitatea. Definizioa eta helburuak

Ezer baino lehen, oso ondo jakin behar da psikomotrizitatea zer den, eta, horretarako, jakin behar da iturri asko daudela psikomotrizitatea bere erara definitzen dutenak, eta orain horietako baten bat irakurriko dugu.

Psikomotrizitatea, Vizcarraren (2007) artikuluan agertzen den bezala,

“heziketa metodologia edo teknika zehatz bat baino zerbait gehiago da, heziketaren filosofia da, bizitza ulertzeko eta jokatzeko era berezia. Munduan egoteko eta izateko modu bat da (Aucouturier, 2004:129). Mugimenduaren bidez pertsonaren garapen fisiko, psikiko eta soziala ahalbidetu, erraztu eta suspertzen duen gaitasun gisa definitu ohi

da psikomotrizitatea (Herrera, 1993). Filosofia horren helburuen artean honako hauek nabarmen daitezke:

- Norbera ezagutzea eta onartzea.
- Portaera (jokabidea) egokitzea.
- Norberaren autonomia garatuz bizitza sozialean ardurak eskuratzeko gaitasunak hobetzea”

Bestetik, Real Academia Españolako (2019) hiztegiak adierazten duen bezala, psikomotrizitatearen kontzeptua pertsonaren hainbat ahalmen sentensoriomotore, emozional eta kognitibori lotuta dago, testuinguru baten barruan arrakastaz jarduteko aukera ematen diotenak.

Era berean, psikomotrizitateak Urrestik (2017) esaten duen bezala, psikomotrizitateak,

“joko librean du oinarria. Aktibitate honen helburu nagusia haurrak ondo pasatzea da. Haurrari jolasgune bat eskaini nahi zaio libreko, minik egin gabe, nahi duen jolasetan aritzeko. Haurra mugimendu librean, jolas librean, bere garapen integrala bideratzen du (garapen afektibo, emozionala, kognitibo, motor, sozial eta morala). Bestalde, harremanak (helduekin edota beste haurrekin) garatzeko parada ere izango du.”

Aucouturier (1996), praktika psikomotorraren sortzailearentzako, psikomotrizitatea, mugimenduan dauden osagai psikikoak ulertzea da. Estrategia batzuk marraztean datza, haurrekin egiteko modu batzuk, haurrak gorputzarekin egiten eta adierazten duen horren esanahia deskubritu ahal izateko. Horretarako, estrategia batzuk erabiltzen dira:

1. Segurtasun-esparru bat sortzea. Horrela bakarrik adieraz daiteke haurra modu espontaneoan. Emozioa eta emozioa ulertzea, psikomotrizitatearen oinarrietako bat da, eta hiru aldagai ditu: Hezkuntza, berreziketa eta terapeutika. Abiapuntua haurra osotasun gisa ulertzea da, alderdi desberdinekin (gorputz mailakoa, soziala, biologikoa, emozionala...).
2. Antolaketa toniko-emozionala. Tonua da identitatea konfiguratzeko duena. Disfuntzioren bat adierazten duten lehen adierazpenak hipotoniatik hipertoniara doan parametro batean kokatzen dira; hau da, tonu baxutik tonu altura.
3. Gorputz-unitatearen esperientzia. Identitatea gorputz-unitatearen esperientziaren bidez eratzen da, eta gorputz lanaren bidez askatzen du emozio hori.

Identitatea NIA-ren ideia gisa ulertzen du, bestearengandik berezia eta besteekin elkarrengaitzeko gai dena. Horregatik hitz egiten da psikomotrizitate erlazionalaz: harremanik ez badago, ez dago garapen psikomotorrik.

4. Zein da eboluzio-ibilbidea. Sentsorimotorretik hasi eta sinbolikotik operatibora heltzen da. Psikomotrizitatea nortasunaren gutxieneko konkista bat egon arte lantzen da. Ibilbide horretan oinarrituta, segurtasun-esparru bat eraikitzen da, eta aretoak, materialak eta saioaren egiturak ematen dute horren berri. Hiru elementu horiek une hori segurtasunez bizitzeko aukera ematen diote haurrari, eta horrek bat-batekotasuna eta berezko mugimendu-adierazpena ahalbidetzen ditu.

Mugak funtsezkoak dira heltzeko. Alderdi segurua da haiantzat, eta errespetatu egingo dute. Kaosak, muga faltak antsietatea sortzen du, eta horrek larritasuna. Aretoko mugak denborarena, espazioarena edo bere buruari kalterik ez egitea eta kalterik ez jasotzea izan daitezke.

Beste alde batetik, oso garrantzitsua da jakitea zeintzuk diren psikomotrizitatearen helburuak. Horretarako, gure buruari galdetu behar diogu, zer helburu izan ditzake psikomotrizitateak? Edo zeintzuk dira garrantzitsuenak?. Izan ere, Aucouturier-en (1996) artikulua araberan, psikomotrizitatearen helburu garrantzitsuenak komunikazioaren garapena, sormenaren garapena eta eragiketarako sarbidea dira. Lehenengoan, komunikazioa garatzen laguntzen du, esateko edo bere buruari esateko gaitasun gisa. Komunikazioa norberarekin, besteekin edo ingurunearekin (materiala, espazioa,...) izan daiteke.

Bigarrena, garapena, bakoitzaren originaltasunean, indibidualtasunean oinarrituta da.

Hirugarrena, pentsamendu operatiboa finkatzea ahalbidetuko dion ibilbide hori egiten laguntzea. Ezin da ikaskuntzarik lortu emozioen finkapenik gabe. Egitearen plazeretik pentsatzearen plazerera: hori da konkista.

Bestetik, De la Flor-ek (2014) Praktika Psikomotorrak honako hiru helburu nagusi dituela deritzo:

- “Hezigarria: Adierazpen psikomotrizaren garapena hobetu hiru helburuak betetzera abiatuz: komunikazioa, sorkuntza, eta ekintza pentsamendua edota pentsamendu operatorioa. 3 eta 7/ 8 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.
- Terapeutikoa: Haurrekin komunikazioa hobetu, berrezarri.
- Berezigarria: Berrezarri komunikazioa, sinbolizazioa eta eskola ikaskuntzen sarrera.”

Bestalde, psikomotrizitatea guztiz ondo ulertzeko, oso garrantzitsua da jakitea psikomotrizitatearen barnean esku-hartzeko bi mota daudela: zuzentzailea eta ez zuzentzailea.

Perezen (2019) artikuluan agertzen den moduan, zuzentzailea, garapen arau orokortuetan oinarritzen da, eta heziketa fisikoa erabiltzen du haurraren garapena "normalizatzeko". Haurrak bere adinean egin behar duela suposatzen denari "jolasten" zaio, helduak zuzenduta, curriculumak zehazten dituen eskolako betebeharrei erantzuteko. Jarduerak planifikatu eta errepikatu egiten dira, haurrak taldeko gainerakoek bezala egiten dituen arte, eta hori gertatzen ez bada, garapena, portaera, sozializazio arazoak,... planteatu ohi dira.

Ez zuzentzailea, aldiz, bat-bateko ekintzaren zati bat da. Haurraren portaerak onartzeak errurik gabe adierazteko aukera ematen dio, eta bi muga baino ez, oso markatuak ditu: nork bere burua zaintzea eta besteak zaintzea. Helduak laguntzen du, ez du diagnostikatzen edo epaitzen, eta ez du zuzentzen; aitzitik, haurraren alderdi positiboan konfiantza du, eta komunikatzeko eta harremanak izateko aukera ematen dio. Aretoan gertatzen den guztiak zentzu bat du, eta ez da inprobisatua, haur bakoitzari bere helburuak lortzeko behar duen espazioa eta denbora emanez.

2.1.1. Korronteak (Picq, Vayer, Le Boulch eta Aucouturier)

Ballesterosek (1982), Mendiara-ren arabera (2008), korronte ezberdinak daudela gai zehatz honen inguruan dio eta esan behar da bi jarrera oso desberdin ikusten direla: alde batetik, Picq, Vayer eta Le Boulch daude, jarrera arauemailearen edo zuzenduaren aitzindari nagusiak izan zirenak (baina kontuan izan behar dugu Vayer eta Picq, jolas zuzenduak proposatzen dituztela eta Le Boulch-ek, aldiz, gidatu baino ez dituela egiten) eta, bestetik, Aucouturier beste autore batzuekin (Lapierre, adibidez) bizipenen psikomotrizitatea; hau da ez zuzentzailea, garatzen duena.

Fajardo (2007) alde batetik, esaten du, Picq eta Vayer egileek diotenez, gorputz-eskema ondo integratu batek, honako hauek eskatzen dituela:

- Norberaren gorputzaren pertzepzioa eta kontrola.
- Jarrera-oreka ekonomikoa.
- Ongi definitutako albokotasuna.
- Segmentuen independentzia enborrarekiko, eta batzuk besteekiko.
- Gorputzaren eskemari eta arnasketaren kontrolari estuki lotutako pultsazio edo inhibizioen kontrola eta oreka.

Bestetik, Fajardoren (2007) artikuluan, Picq eta Vayer hiru fase bereizten dituzte denboran zeharreko harremanen antolaketa progresiboan:

1. Oinarrizko elementuak eskuratzea (haurren ekintzari lotutako abiaduraren nozioa, iraupenaren nozioa, jarraitutasunaren eta atzeraezintasunaren nozioak).
2. Denboran zeharreko harremanez jabetzea (denboraren une desberdinak ikastea eta aldiberekotasunaren eta segidaren nozioetara iristea).
3. Maila sinbolikora iristea (hainbat elementu koordinatzea, mugimendua eta espazioa pixkanaka askatzea, oinarrizko eskola-ikaskuntzetara zabaltzea eta aplikatzea, eta koordinazio dinamikoko ariketetara transposizioa eta elkartzea).

Fajardo (2007), beste alde batetik, azaltzen digu, Le Boulch-ek baieztatzen duen bezala, gaizki definitutako gorputz-eskema batek subjektuaren eta munduaren arteko kanpo-harremanaren defizita esan nahiko du, pertzepzioaren (espazio-denboraren egituraketaren defizita), motrizitatearen (baldarkeria, koordinaziorik eza, jarrera txarrak) eta bestearekiko harremanaren (harreman- eta karaktere-planoaren gaineko eragina) planoan islatzen dena.

Beste alde batetik, koordinazioa egitura neurologikoen heltze-prozesu baten bidez eta jardueraren bidez lortzen da. Ariketa oro giharretako sinergiak planifikatzean datza, elkarren artean koordinatuta, helburu bat lortzeko. Le Boulch-en arabera (1978), horrek esan nahi du ikaskuntza globala dela, haztapan esperimentalean oinarritua, non lortu beharreko helburua baino ez den kontziente, mugimenduaren zati ezberdinen programazioa, aldiz, maila kontzientean gertatzen den.

Le Boulch-ekin jarraituz, Vizcarrak (2007) dioen bezala, psikozinetika oso garrantzitsua izan da egile honentzat:

“Le Boulch eta psikozinetika: Heziketa Fisikoaren ikuspegi mekanizista gaitzesten du, eta pentsaera positibista eta kartesiarren aurka doa. Ikuspegi zientifikoaren barruan kokatzen da (psikozinetika): osotasunezko hezkuntza metodoa, mugimenduaz baliatzen dena. Portaera motorren oinarri neurologiko eta dinamikoak aztertu ditu. Honako hauek dira haren pedagogiaren ezaugarriak: aktiboa, gizakiaren ikuspegi bateratua, metodologia ez zuzendua, eskola ikasketetarako baliagarria izatea (oinarriak eskuratzen laguntzea). Heziketa Fisikoa ez da arlo bereizi eta isolatu gisa azaltzen. Hezkuntzaren osotasunezko ikuspegitik abiatuta, mugimendua, adierazpena eta adimenezko jarduera lotuak proposatzen ditu. Berak dionez, mugimenduaren heziketaren bidez, garapen psikomotorra

suspertzen da, norbere buruaren eta gorputzaren kontzientzia hartuz, beste pertsona eta objektuekin erlazionatuz.”

Bestaldetik, Fajardo (2007) egilearekin jarraituz, giza mugimendua, neurri handi batean, gizarte-ingurunearen mende dagoela dio. Hau neurri batean, mugimenduararen edukia eta formak zehazten baititu. Giza mugimenduaren izaera sozialetik funtsezko bi propietate ondorioztatzen dira: adierazkortasuna eta iragankortasuna.

Le Boulch autoreak dioenez, mugimenduaren adierazkortasunean bi alderdi bereizten dira: iritzi espontaneo, organismoaren dinamismoaren itzulpena inolako asmo edo objektu kontzienterik gabe; eta adierazpena, komunikazio gisa; horrek esan nahi du izakiak zerbait adierazi nahi duela bere keinuen edo mimikaren bidez. Hau da, adierazkortasunean, erreakzio afektiboak eta emozionalak erreakzio toniko-motorren bidez kanporatzen dira, eta horiek kontzienteak edo inkontzienteak, espontaneoak edo kontrolatuak izan daitezke.

Iragankortasuna, aldiz, objektuaren gainean gauzatzen da, hura aldatzeko helburuarekin. Motibazioa da motrizitate iragankorra antolatzeko oinarrizko premisa. Ramos, motibazioak jokabidearen alderdi moldagarria gogorarazten du, eta horren bidez, mugimenduaren plano afektiboa eta plano iragankorra elkarri lotuta mantentzen dira; gauzatzen den ekintzak izaera pragmatikoa edo erabilgarria izan dezake (egiten jakitea, eraginkorra eta zehatza izatea ezaugarritzen da), edo izaera ez pragmatikoa, ludikoa. Koordinazio motorra, orduan, sortzetikoa (erreakzio primarioak eta erantzun automatiko jakin batzuk) edo borondatezkoa (praxiak) izan daiteke.

Aucouturier (1996), aldiz, sarreran esan den bezala, heziketa psikomotorra ekintza motorrean oinarritutako prozesua sortu zuen. Honetan eta gorputzaren mugimendu espontaneoaren bidez, haurrak oinarrizko nozioak ikas ditzakete NIAren eta munduaren egituraketa ahalbidetuz.

Aucouturierentzako (1996) psikomotrizitate-kontzeptua umeari dagokion heltze-kontzeptua da; izan ere, heldutasun hori bere garapen-aldi bati dagokio, non sentorio-motrizitatea prozesu psikologiko inkontziente eta kontzienteen sorreratik bereizi ezina den.

Kontuan izan behar da pertsonaren barneko kanpoko eraldaketa ororen ondorioa aldaketa bisualak, ukimenezkoak, entzumenezkoak, tonikoak, motorrak eta, batez ere, emozionalak direla, plazerezko afektuak askatzeagatik.

Aucouturier praktika psikomotorrak ate bat irekitzen du, haur bakoitzak jolasean ikas dezakeen espazio baterantz. Benetan jokatzuz, berak nahi duenera eta berak nahi duen erara, elkarbizitzarako arau batzuk errespetatuz. Beren gaitasun fisikoak eta kognitiboak erakusteko eta diren bezala erakusteko aukera ematen dien espazio bakarra da. Kaosa ez da garrantzitsua, eta benetan hauta dezakete harremanak izateko eta egoera emozionalaren arabera jarduteko modua.

Beraz, praktika psikomotorra metodologia bat dela pentsatu behar da, haurrak mugimenduaren bidez esperimintatzea, bere gorputza hautematea eta bere nortasuna eraikitzea ahalbidetzen duena, komunikaziora, espresiora, sinbolizaziora eta deszentraziara irekitzen duten prozesuen estimulua erraztuz, horiek guztiak beharrezkoak baitira pentsamendu operazionalera iristeko.

2.1.2 Helduaren zeregina:

Beste puntu oso garrantzitsu bat helduaren rola da, hau da, heldua haurren ardurapean jokatzeko duen garrantzia.

Polentinos-en (2006) artikuluan oso gauza interesgarriak agertzen dira gai honen inguruan, hala nola;

“Haurra etengabe berrantolatzen eta hazten ari den zerbait bezala hartzeak bere burua eraikitzen ari den izaki baten aurrean kokatzen du heldua, eta helburua da haurrak bere izaeraren eta bere egikera pertsonal eta propioaren arabera egin dezala hori. Haurren identitatea errespetatuz berarengana hurbiltze pertsonalizatua egiteak esku-hartzeko estrategia egokiak ezartzea ahalbidetzen du, bere zentzua hobeto ulertuz, komunikazio- eta harreman-giroan; horrela, bakoitzaren erritmo, ezaugarri eta berezitasunetara egokitzea lortzen da. Zeregin horrek baditu paradoxa batzuk: gidatu eta erretiratzea, presente egotea eta ez inbaditzea. Hezitzaileak kontraste pedagogiko batzuekin jokatu behar du: adibidez: askatasuna/gidaritasuna; inplikazioa/erretiratzea; ziurtasuna/ziurtasunik eza, etab.”

Beste alde batetik, haurrek bete behar dituzten helburuak jakitea oso garrantzitsua da eta, horretarako, funtsezkoa da helduaren jokabidea. Hori, azken finean, oso garrantzitsua da haurrentzat eta haien garapenerako. Polentinos (2006) artikuluekin jarraituz,

“Helburua: haurra irits dadila harreman-izaki, gizarte-izaki, izatera. Haurra komunikazioaren atseginean hezteko jendekin bihurtzea da batez ere, baina baita bere barrutik irteten laguntzea ere. Haurraren ekintza onartzea eta ispilu gisa berari itzultzea eta berak egindakoaren arabera proposamenak egitea, eta proposamen horiek helburu nagusiaren arabera egitea, hau da, harremanak izaten laguntzea hiru alderditan: bere buruarekin, besteekin eta ingurunearekin.”

Era berean, oso garrantzitsua da eta kontuan hartu behar da helduaren portaera, psikomotrizitate klase batean oso garrantzitsua baita haurrarekin nola komunikatzea eta nola hurbiltzea. Horregatik Polentinos (2006) artikuluan honako hau agertzen da:

“Helduak jakin behar du haurren jolasa eta ekintzak direla errealitatea eraiki, ulertu eta asimilatzeko duten prozesua, baita ingurunera egokitzeko ere, eta, beraz, kontuan izan behar dugu zein den bere ekintzen zentzua. Haurrak jolasaren, ekintzaren, gauzak egiteko atseginarekin bidez segurtasuna bilatuko du bere larriminetan.

Winnicott-ek esaten du pertsona arduratsu edo erantzuleek prest egon behar dutela haurrak jolasten direnean, baina horrek ez du esan nahi haurren jolasean sartu behar dutenik. Heldua ez da haurrarekin jolasten, ez da haurraren jolasean zuzenean sartzen, baizik eta prest dago haurra jolasten denean, baina jolas horretan bera harrapatu eta itxi dezan onartu gabe.”

2.1.2.1 Behaketa:

Puntu honetan garrantzitsua da behaketak eta entzumenak duten garrantzia azaltzea. Horregatik, Sánchez & Llorca (2008) artikuluan oso ondo azaltzen dute gai hau: Entzun egiten dela esaten dugu behaketa dagoenean, eta biek haurrak psikomotrizitate-saio bakoitzean adierazten diguna ulertzea dakarte. Gaitasun hori oinarrizkoa da haurraren heldutasuna erraztuko duen esku-hartze doitu eskaintzeko.

Behaketa egin ahal izateko, beharrezkoa da, batetik, ekintzan gelditzea, gelan geldialdi txikiak egitea haurrak behatzeko, eta, bestetik, proiektu pedagogiko bat egin dezakegu taldearen eta haur bakoitzaren eboluzio-unearen arabera (Aucouturier, 1994).

Sánchez & Llorca-ren (2008) artikuluekin jarraituz, jardueran gelditzea batzuetan zaila izaten da kultura psikopedagogiakoan murgilduta gaudenean, non hezitzaileak jardueran oinarritutako rola betetzen duen. Funtsezkoa da gelditzera eta behatzera

ohitzea, behaketa hori funtsezko gaitasuna dela ulertuta gure rol pedagogikoan, hau da, edozein esku-hartze egin aurretik oinarrizko hezkuntza-ekintza batean.

Behaketa horretan funtsezkoa da entzun izana, hau da, psikomotrizistak deszentratzeko duen gaitasuna bestearen lekuan kokatu ahal izateko, haur bakoitza nola senti daitekeen ulertzeko, bere adierazpenaren zentzua zein izan daitekeen ulertzeko, eta sortzen den harreman afektibotik abiatuta eboluzionatzen lagunduko dion erantzun bat emateko.

Entzuteko gaitasuna batzuetan berezia da haur jakin batzuen aurrean, eta horiekin enpatia harremana sortzen da. Egoera hori, haur batzuekin gerta daiteke, beste batzuekin zaila izan daitekeen bitartean.

Haur bakoitza den bezala onartzeak, eta ez nahi genukeen bezala, psikomotrizistak lan pertsonala eta gogoetatsua egitea dakar, batzuetan urte batzuk behar izaten baititu agerikoa, kontzientea eta aldagarria izateko.

Askotan gerta daiteke hurbiltzen ez diren edo gutxiago hurbiltzen diren haurrak izatea arreta gehien behar dutenak (Lapierre, 2001).

Sánchez & Llorca (2008) artikuluekin bukatuz, entzuteko eta behatzeko dugun gaitasunak esan nahi du haurraren jolas ekimenaren zain egon ahal izatea, egiten uzteko gai izateagatik, jolasean inplikatzuz modu doituari erantzun ahal izateko.

2.2 Psikomotrizitateko saioa

Psikomotrizitate saio asko daude, baina Aucouturierren praktikari begira, esan beharra dago gaur egun ikastetxeetan gehien erabiltzen dena dela, eta garrantzitsua da praktika horretan zer fase dauden jakitea. Beraz, Perezek (2019) esan bezala, praktika psikomotorreko sesio batean, 5 fase gainditu behar dira (Sarrera, adierazpen motorra, istoriaren fasea, adierazpen grafikoa eta irteera).

- Sarreran, psikomotrizistak umeak hartzen ditu, eserlekuetan esertzen dira eta ahal bada ispilu baten aurrean denak batera ikusteko, aretoa bistaratzen duten bitartean. Errespetatu beharreko arauak gogoratzen dira: nor bere buruari kalterik ez egitea eta besteei kalterik ez egitea, baita materialak errespetatzea ere. Aurreko saioa gogoratzen da (gustatu zitzaiena, ikusi zen gaitasunen bilakaera, baita gustatu ez zitzaiena ere, taldearen bilakaera mugatzen duten gauzak baitira), eta

oraingo saioan gertatuko dena aurreratzen da. Egokiena da prozesu horretan haurrek esku hartzea, psikomotrizista gidari gisa.

- Adierazpen motorra, sarrera eta gero egiten da. Hemen, helduak eraikitako harresi edo gaztelu bat eraisteko prestatzen ari dira haurrak, aretoan dauden goma pieza guztien bidez. Emozio eta ezinegon handiko unea da, eta psikomotrizistak suntsipena atzeratzen jakin behar du, bere intentsitatea une egokian askatzeko. Une egokia dirudi bulkaden arreta eta inhibizioa lantzeko. Psikomotrizistak nolabaiteko erresistentzia ere eskaintzen du, haurrak helduaren gainean irabazle senti daitezen, haren gainean ahalguztiduntasun moduko bat izanez. Horrela, harresiaren alde batean haurrek helduek inposatzen dieten guztia uzten dute: eskakizunak, arauak, zereginak,... eta beste aldean espazio bat aurkitzen dute, berez adierazteko aukera izan dezaten, eskola-jarduerarekin lotu ohi den eta beren buruarentzat hain berezia ez den guztia gabe. Beraz, harresia eraistek helduok ezartzen ditugun eskakizunak haustea esan nahi du, eta haiek izaten hastea, bakoitzak bere "Ni" propioa bilatzen hastea, zeren, Acouturier esaten zuen bezala, heldu baten aurka bere indarra erabiltzea, urrundu nahi duela erakustea da, menderatzeko gaitasuna duela egiaztatzeko eta bere nortasuna berresteko.

Hortik aurrera, suntsitzearen plazerak hainbat joko ekarriko ditu, eta jolas horiek plazer sensoriomotorreko dinamika batean sartzea ekarriko dute. Aucouturierrek lehen joko horiek aipatzen ditu, suntsipenekoekin batera, "Azaleko segurtasunerako joko" gisa. Egileak dioenez, unibertsalak dira, mundu osoan ematen dira kulturen arteko aldaketarik esperimintatu gabe, eta galeraren eta suntsitua izatearen beldurrarekin lotutako larritasunaren aurrean ziurtatzen dutelako deitzen dira horrela. Izan ere, ez da jarduera motor soil bat, ez dute trebetasun jakin bat eskuratu behar, baizik eta gailu osoa mugarik gabeko adierazpen emozional, sozial eta intelektualeko tresna gisa ulertzen da. Espazioa espresibitate motorra askatzeko espresuki diseinatuta dago; izan ere, itxura eman badezake ere, ez da inprobisazio hutsa, dena oso ondo aztertuta dago eta ezer ez da doakoa. Espazio horretan haurrak korrika egin, salto egin, orekak egin, igo, inguratu, erori ... dezake, eta bazter guztiek funtzio zehatzak dituzte, haurraren garapen osorantz iristen direnak. Mota ezberdineko espazioak daude, hala nola plintoa eta salto egiteko koltxoak, eta horietan haurrak kontraste hori esperimintatzen du, bere gorputzaz kontzienteago izaten laguntzen diona, oreka berresten laguntzen diona. Espazio sentso-gogorak ere badaude, hala nola arrapala edo espalderak, non haurrak igotzeko prest daude hasten

direnean. Baina biltzeko espazioa ere badago, edozein kontraste motaren aurreko estadioa dirudien honetan: zaku eran irudikatu ohi da, besarkatzen dituen espazio bat, bakea ematen diena, biltzen dituen.

Fase horretan bertan, haurrak beren gorputzaz gozatzeko orduan sendotuta eta mugarik gabe sentitzen diren heinean, jolas sinbolikoa agertuko da pixkanaka, hau da, objektu bat erabiltzeko gaitasuna, nahita beste bat irudikatzeko asmoz. Horrela, guraso-identifikazioko, irudizko pertsonaiekin identifikatzeko edo gizarte-bizitzako jolasak egiten hasten dira. Aucouturierrek "segurtasun sakoneko jolasak" deitzen die, haurrak gatazka berrienetatik babesten dituzten irudimenezko ezkutuak direla uste baitu, eta azaleko segurtasunekoak ez bezala, kulturaren arabera aldatzen dira. Sinbolizazioa pixkanaka agertzeak esan nahi du haurra goiko fase kognitibo batean sartzen ari dela.

Ibilbide natural hori sortzen laguntzeko, hau da, azaleko segurizazio-jolasak (edo sentoriomotorrak) segurtasun sakoneko jolasetara (edo sinbolikoetara) igarotzeko, psikomotrizistak fase hori bitan zatitu ohi du, eta trantsizioa markatzen du sinbolizazioa bultzatzeko pentsatutako materiala gehituz, oso figuratiboa ez bada ere (oihalak, sokak ...), haurrek beraiek aukera dezaten. Beren heldutasun mailaren arabera, haurrek sokak erabiliko dituzte haietatik tiraka jolasteko, edo suge batek erasotzen diela simulatzeko.

Puntu honen barruan, mugimenduaren eta jolas sinbolikoaren garrantzia azpimarratu behar da; hau da, adierazpena.

→ ***Adierazpena (mugimendua eta jolas sinbolikoa):***

Psikomotrizitate saio batean, jolas sinbolikoa eta mugimenduak asko lantzen dira.

Alde batetik, jolas sinbolikoa, haurrentzako irudimenezko eta bat-bateko jolasa da, non haurrek errealitateaz jabetzen dira eta bere akzioetan zentratzen den hizkuntza batean aipatzen dute (Tejerina, 1994) eta berezitasun bat bezala, jolas sinbolikoa "gauza bat beste gauza bat balitz bezala" izeneko jolasa bihurtu da, non errealitatea fikzioan bihurtzen da, ikurrak maneiatzeko gaitasunari eta bere esanahiei esker haurra errealitatetik aldendu daiteke fikziozko egoera bat sortzeko (Ruiz de Velasco eta Abad, 2011).

Vizcarra-ren arabera (2007), jolasa eta errealitatea bereizten dira; jolasa norberaren ezagutzaren eta esperientzien isla da. Umea bereizketa hori egiteko

gai denean, jolas sinbolikora ailegatzen da. Jolas sinbolikoaren bidez, umeak bere munduan boterea eskuratzen du, baina, horretan, arauak bestelakoak dira. Errealitatea imitatuz, mundura egokitzeko prozesua gertatzen da.

Abad-ek (2008) baita ere jolas sinbolikoari buruz hitz egin du. Honek, praktika psikomotorreko saio batean egiten den ibilbidea honako prozesu hau jarraitzen duen ibilbidea egiten duela dio: joko sentsorimotorra, Joko sinbolikoa eta Adierazpena edo Ordezkaritza. Praktika psikomotorra, halaber, zuzendaritzaz kanpoko esku-hartze metodologia bat da, buruaren eta gorputzaren arteko dualismoa gainditu nahi duena, haurrei beren osotasunaren integrazio harmonikoan lagunduz, funtzio sinbolikoaren bidez komunikatzeko, adierazteko, sortzeko eta pentsatzeko. Horrela, sinbolizatzea ekintza ludikoaren bidez taularatzen den gorputzaren bidetik irudikatzea da.

Proposamen horretatik abiatuta, haurrak bere imajinazioa adierazteko aukera du. Irudipen hori inkontzienteki eraikitzen da, sortutako harreman-testuinguru horretan txiki-txikitatik bizitzen dituzten ekintzen eta bizipenen bidez. Imaginarioa "historia sakon" gisa ere definitzen da, haurtzaroa bere kontzepzioan parte den testuinguruaren barruan garatutako harreman horietan eraikia. Hori ekintzaren bidez garatzen da, eta, aldi berean, ekintza horren beraren motorrik esanguratsuenetako bat izaten amaitzen du; horrela, gorputzak gordailuzain gisa jarduten du, hau da, bertan "jardule" gisa aipatu dugun historia sakona "inskrribatu" edo "grabatu" egiten da. Gorputza ezin da ulertu espazioarekin eta denborarekin, objektuekin eta gainerakoekin duen harremanik gabe, hau da, imaginarioa eraikitzen den harreman-testuinguru hori osatzen duena. Praktika psikomotorrak haurren ekintzen eta gorputz-adierazkortasunaren arteko informazio esanguratsuak sustatzen eta eskaintzen ditu, lau aldagai horiei dagokienez.

Aucouturier (2004) honekin lotuta esaten zuen, haurtzaroan, bereziki, hazteko nahia eta subjektu independente gisa eraikitzeke nahia adierazten dute: "Nik eraikitzen zaitut edo suntsitzen zaitut" eta "nik eraikitzen naiz", "Nik deitzen zaitut" eta "agerrarazten zaitut, desagerrarazi eta zugandik alden nahi zaitudalako", haur guztien jolasaren dialektika ezartzen da. Eraldaketa-prozesu hori egiteko, errealetik sinbolikora, beharrezkoa da haurrak bere gorputza eraldatzea, tonu-emozionalak bere pentsamendua eta imaginarioa aska ditzan.

Bestetik, mugimendua oso garrantzitsua da ere, eta Chokler-ek (2011) dio, Henri Wallonek esaten zuela *"haurraren mugimendua dela haren bizitza psikikoaren froga. Eta hitza agertzen den arte horrela dela"* eta Chokler-ek honako hau, esaten zuen :

“hitza agertu ondoren ere horrela dela. Izan ere, hitza agertzen den unetik hitza nagusitzen den unera arte, arrazoibidea bere burua adierazteko funtsezko elementu bihurtzen den arte, denbora luzea igarotzen da. Urte eta erdirekin, bi urterekin edo hiru urterekin, haur batek gorputzarekin hitzarekin baino gehiago adierazten baitu oraindik. Beraz, haur baten motrizitateari begiratuta, haur horren historia, mugimenduen askatasunaren historia, aurki dezakegu.”

Laburbilduz, Chokler-ek (2011) esan nahi duena da,

“Haurraren gorputzaren bitartez haur horren historiaren berri emateaz gain, haurraren pentsamendua ere ikus dezakegu. Mugimendua ikusten dugu, mugimenduaren diskurtsoa, eta, mugimendu horrekin hasten, zabaltzen, hedatzen edo adierazten denaren bidez, haurraren irudikapen mentalak ikus ditzakegu. Hau da, haurraren pentsamendua zein den iker dezakegu, haurraren pentsamendu eredua edo pentsatzeko era zein den. Haurraren nahia eta helburua zein diren ikusteaz gain, pentsamendua nola antolatzen duen ere ikus dezakegu: objektua gerturatu behar duen jakiteko, nola igo behar duen, nola hartu behar duen, jaitsi behar badu objektuaren mugimendua nola doitu behar duen, gero hobeto mugitzeko... Mugimenduari lagunduko dioten irudikapenak nola ikusten diren. Haurraren mugimenduaren bitartez horren pentsamendua ikus daiteke, beraz. Eta haurraren mugimendua eta pentsamendua ikusten ditugunean, beste alderdi bikain bat ere aurki dezakegu: haurraren psikismoaren egitura dialogikoa. Hau da, haurrek beren buruekin hitz egiteko duten gaitasuna.”

- Istorioen fasean, lehen denboraren kontrolik eza eta emozioa bete-betean bizi izan direnean, sinbolizazio horretan beste maila bat igotzeko garaia da, sinbolizazio hori mugimendutik urruntzen den maila bat, jolasteko plazeretik pentsatzeko plazerera pasatuz eta, horrela, irudikapen mentala erraztuz. Istorioaren fasea aurrekoaren espazio berean garatzen da, eta psikomotrizistak ipuin bat kontaktzen du bertan.

Istorioren horrek zerikusi zuzena izan beharko luke haurren emozioekin eta haien beldurrekin, eta, gainera, orainaldian kontaktua izan beharko luke, protagonistarekiko identifikazioa errazteko. Aucouturierrek, gainera, istorioa kontaktzean bi erregistro desberdin erabiltzea gomendatzen du: bata, larritasunerantz igotzekoa, balio dramatiko gehitzeko, eta bestea, azkenerako segurtasun emozionalera itzultzeko, betiere ahots-tonuan aldaketak, keinuak, isilune tentsiodunak eta abar eginez. Horrek guztiak haurraren deszentrazio prozesu bat ematea errazten du, bilakaera kognitiboa erraztuko duena. Hemen,

Aucouturierrek bereizten ditu prozesu honetan hasitakoen eta beren adierazkortasun motorra behatuz hasi gabekoen artean; izan ere, saioa deszentrazio kognitiboa pizten ari den saioetan arreta etengabea erakusten dute eta emozioak gehiegikeriarik gabe adierazten dituzte, protagonista imitatzen, keinuak egiten, eteten eta oihu egiten dutenen aldean, oraindik ez baitira maila horretara iritsi. Fase horri esker, hizkuntzaren bidez berraseguratzeko sakona gertatzen da, mugimenduaren bidez beharrez, lehen garai hartan bezala. Egia esan, prozesu hori heldutasun globalarekin paraleloa da; izan ere, oro har, hizkuntza erabiltzeak haurren jarduera motorra murriztea dakar.

- Adierazpen grafikoaren fasean, istorioa kontatu eta gero ematen da. Bigarren espazio horrek ondo mugatuta egon behar du areto beraren barruan, baina ezin da erabili aurretiko jardueretarako, haurrek saioan zehar bizitako emozioetatik urruntzeko aukera izan dezaten, horiei buruzko edo beren istoria pertsonalari buruzko marrazki edo eraikuntza (aukeran) bat eginez.

Fase honen helburua, eman dezakeenaren kontrara, ez da marrazkia edo eraikuntza bera, ezta psikomotrizistak eman diezaiekeen interpretazioa ere. Aitzitik, haiekin batera gertatzen diren istorioak eta haurrek istorio horiek egiteko erabiltzen duten hizkuntza dira garrantzitsuena. Psikomotrizistak haur bakoitzari bere sorkuntzari buruz hitz egiten lagundu behar dio, deszentrazio-prozesua gerta dadin. "Kontatu diezadakezu zure marrazkiaren istorioa?" Bat nahikoa izan daiteke haurra marrazteko unean bere burutik pasatzen dena hitzez adieraztera ausartzeko, bere ekoizpen propioei zentzua aurkituz. Etapa honek are sinbolizazio maila handiagoa eskatzen du, lehenik, gorputzaren bidez askatu baita, gero, besteen hizkuntzaren bidez, norberaren hizkuntzaren bidez egin arte. Aucouturierrek berak, ordea, haur bakoitzaren erritmoa errespetatzearen garrantziaz ohartarazten du; izan ere, gehiegi presionatzen bada sinbolizazio hori, segur aski sorkuntza estereotipatuak lortuko dira, nahi dugun deszentrazioaren oso kontrakoak. Gainera, Aucouturier esaten du, hezkuntzako Praktika Psikomotrizeko saio bat, adierazkortasuneko bigarren denbora hori gabe, saio ebaki bat izango litzateke, ez bailitzateke bere helburuei eta haur bakoitzaren garapena eta hazkundera errazten duen heldu psikologikoko ibilbideari erantzungo.

- Azken fasean, irteerarena, haurren adinaren arabera aldakorra izango da, eta Aucouturierrek gomendatzen du 3 urte bete ondoren haur bakoitza banan-banan ezagutzea, bere izenez deituz eta aretotik irten aurretik bostekoa emanez, haren arabera haurrek garrantzi handia ematen baitiote helduen keinu sozial horri.

Azkenik, haurrek beraiek jaso beharko lukete aretoa, material guztia sartzean aurkitu zuten modu berean utziz, ekintza hori, berriro ere, deszentrazioarako lagungarria izango litzatekeelako; baina zenbait kasutan jolasa berrabiarazteko aitzakia bihur daiteke.

2.3 Ebaluazioa/ behaketa

Psikomotrizitateko saio baten alderdi garrantzitsuenetako bat, ebaluazioa da, horregatik galdera bat egin behar dugu gure buruari, zergatik da beharrezkoa ebaluazioa? Bolarín-ek (1998) esaten duen bezala, hezkuntza- eta gizarte-arloko esku-hartzeek ez dituzte nahitaez lortu nahi diren ondorioak lortzen, gertatu direlako bakarrik. Haurrek ikasten dutena ez dator beti bat irakasleak irakasten duenarekin, baizik eta haur batek ikasten duena dagoeneko dakienaren, esperientzien, interesen, motiboen eta itxaropenen arabera dago. Gainera, batzuetan, hezkuntzako esku-hartzean, bilatzen eta aurreikusten ez diren emaitzak lortzen dira, eta, are gehiago, ez du eragin hautemangarririk sortzen, eta ez du lortzen eragin nahi zuen errealitatea aldatzea. Emaitzen aniztasun horren aurrean, beharrezkotzat jotzen da gertatzen diren edo sortzen ez diren ondorioak ebaluatzea, hezkuntza-prozesuan erabaki egokiak hartzeko. Eta ez dugu ahaztu behar garrantzitsua eta beharrezkoa dela ebaluatzea erabaki pedagogikoak hartzeko.

Ebaluazio hau hiru alditan egin behar da, ikasturte hasieran, erdialdean eta amaieran. Une hauetako bakoitzean, etapako helburu orokorrak eta arloetako helburu orokorrak ebaluatuko dira.

Bestalde, hasieran esan bezala Sánchez & Llorca (2008) artikuluan, behaketa horretan funtsezkoa da entzun izana, hau da, psikomotrizistak deszentratzeko duen gaitasuna bestearen lekuan kokatu ahal izateko, haur bakoitza nola senti daitekeen ulertzeko, bere adierazpenaren zentzua zein izan daitekeen ulertzeko, eta sortzen den harreman afektibotik abiatuta eboluzionatzen lagunduko dion erantzun bat emateko.

Ebaluatzeko, behaketa taula bat egin daiteke eta parametroetan banatu, ideiak hobeto argitzeko. Aucouturier-ek (1996) dioenez, parametroak begiraturaz gero, errazagoa da esku hartzea. Ditzuten harremanen arabera ezartzen dira (beren buruarekin, besteekin eta espazioarekin), bakoitzaren estrategiak eta originaltasuna ulertzeko. Harremanak pertsonalizatzeko aukera emango digu. Harreman esanguratsuak dira garrantzizkoak eta itxarotea garrantzitsua da.

Oso garrantzitsua da jakitea eta behatzea nola erlazionatzen den denborarekin (Jardueren iraupena), espazioarekin (Nondik mugitzen den, espazioaren egitura gisa, pribilegiozko espazioak mugitzen diren lekua, jolas sinbolikoari ematen zaion lekua eta espazializatzen den lekua), materialarekin (Manipulatzeko gaitasuna, baldarra bada, menderatzen duena... eta materialari ematen dizkion funtzioak), beste hurrekin (Probokazioa edo sedukzioa, aurre egiteko gaitasuna, lankidetzak, elkartasuna ...) eta helduekin (Babes-harremana, eskari-harremana, arbuio-harremana,...).

Hala nola, García eta Geovano (2018) esaten duten bezala, haur bakoitzean behatu beharreko parametroak honako hauen arabera antola daitezke: objektuarekiko harremana, espazioarekiko harremana, denborarekiko harremana, besteekiko harremana eta bere buruarekin, hezitzailearekin duen harremana eta abarrekin.

Behaketaz gain, haurrek egindako marrazkiak ere ebaluatzeko beste tresna baliotsu bat dira; izan ere, haurrek beren gorputzaren irudikapen mentalari, heldutasun grafomotorrari, lortutako irudikapen-mailari eta, gainera, beren bizipen esanguratsuenak eta taldean nola kokatzen den erakusten dute.

Era berean, haurren eta taldearen bilakaeraren erregistroa etengabe egitea iradokitzen da, praktika psikomotorra haurren bilakaera-prozesura egokitu ahal izateko.

Bestetik, Aucouturier-ek (1996) dio, psikomotrizistak haurraren ekintzarekin batera jardun behar duela, bere autonomia inbaditu gabe. Kontua ez da segurtasun sakoneko jolasak eta gainazaleko segurtasunekoak bultzatzea eta bultzatzea, haurren ekintzetara egokituta. Psikomotrizistak keinu eta hitz maitekorrekin erantzun behar du, baina, aldi berean, irmo. Halaber, komunikazioa dinamizatzen jakin behar du, eta, jakina, gatazka konpontzeko erraztasunak eman behar ditu, baina erraztu baino ez, interesdunek berek ebatzi behar baitituzte. Azken batean, psikomotrizistak umeari heldze-prozesuan laguntzen dion heldu arretatsua izan behar du, eta haren ekoizpenak, zailtasunak, beldurrak, aurkikuntzak, desioa, plazera eta emozioak hartu eta baloratu behar ditu.

Arnáiz & Bolarín (2000) behaketa taula bat sortu zuten, Aucouturierren metodologiarekin lotuta eta hemen azaltzen duten bezala, diseinatu, baliozkotu eta fidagarri bihurtu duten behaketa-gida aurkeztu dute (Bolarín, 1998). Haurra psikomotrizitate saioan parte hartzen ari den bitartean erabiltzea gomendatzen da. Haien esperientzia da hura pasatzen trebatutako begirale batek ordubetez osa dezakeela behaketa, eta denbora hori saioak irauten du normalean. Hala ere, hori ez da arau bat; behaketa hainbat saiotan egin daiteke, betiere beharrezkotzat jotzen bada.

Kontuan izan behar da, jarduera psikomotorren ebaluazioak, indibidualtasuna eta norberaren garapen motorra kontuan hartzen dutela; inoiz ez da konparaziorik egin behar haurren artean.

Atal honi amaiera emateko, behaketa taulaz gain, haurrak ebaluatzeko modu gehiago daude. Hala nola, grabaketak, koadernoak, behaketa eta abar.

Adibidez, behaketa aukeratzen bada, Rubio & García (1993), esaten duten bezala, 5 pausu bete behar dira.

1. Behaketaren aldi osoan haurrak egiten dituen jarduera guztiak zehatz-mehatz jasotzen dira, 30 eta 40 minutu bitartean.
2. Behaketak jolas libreko saioen bidez egiten dira, beste hurrekin batera.
3. Egunero, egindako behaketak aztertzen dira eta behatutako arlo bakoitzaren ondorioak lantzen dira.
4. Aldizka (hiru hilean behin izan daiteke) behaketa bakoitzean ezarritako ondorioak alderatuko dira, haurraren bilakaera eta curriculumaren egokitasuna zehazteko, beharrezkoa bada.
5. Ondorioak atera ondoren, txosten bat egingo dugu haurrak arlo bakoitzean izan duen bilakaerari buruz eta ondorengo hezkuntza-egoerei begira duen egoera pertsonalari buruz, behaketaren xede den haurrari ikaskuntza-edukiak ahalik eta hobekien egokitzeko.

Behaketak ikasturte osoan zehar antolatzen dira, eta eguneroko ordutegi bat gordetzen da behar horretarako, ikasgelako haur guztiak gutxienez hilean bitan behatu ahal izateko.

3- HELBURUAK

Oinarrizko hezkuntzak arautzen duen eta indarrean dagoen, 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculumean oinarrituz, psikomotritatean hainbat helburu planteatzen dira:

- Komunikatzeko era desberdinak arakatzea psikomotritate saioen bitartez, haurrak askotariko hizkuntzetara hurbiltzeko.
- Gorputzaren kontrola lantzea mugimenduen bitartez, ekintzetan dituen ahalmenak eta mugak deskubritzeko.

- Elkarbizitza egoki baterako trebatzea, psikomotrizitatean baliatuz, haurren eta hezkuntza komunitatearen arteko lehenengo kontaktua errazteko.

Hau horrela izanda, eta psikomotrizistek helburu hauek betetzen direla ziurtatzeko, behaketa taulak erabiltzen dituzte, baina askori hauek erabiltzea zaila iruditzen zaie edo, besterik gabe, ez dute denborarik horiek betetzeko. Horregatik, ikerketa honetan behaketa taula propioa egitea planteatu da; sinplea eta erabiltzeko edo betetzeko errazagoa izan daitekeena.

Hori dela eta, ikerlan honetan ondorengo helburua planteatu da:

- Ikasleen alderdiak aztertzeko behaketa taula diseinatzea eta bere erabilgarritasuna ebaluatzea.

4- METODOLOGIA

4.1 Lagina

Ikerketa honen oinarriak, aurtengo praktikak izan dira. Oraingo praktika hau burutzeko aukera, Vitoria-Gasteizko Escolapios-Calasanz eskolan izan da. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan egin dira, zehatz mehats bost urteko gelan, 26 haurrekin.

Behaketa taula, 5 urteko hiru haurrei pasa zaie, haien artean hiru profil desberdin zeudela zirudielako eta elkarren artean alde handiak ikusten zirelako.

4.2 Tresna

Behaketa taula sortzeko oinarria, Arnáiz & Bolarín (2000) gidan izan da. Gida horretan, zein parametro kontutan izan behar diren zehazten dituzte. Honetaz gain, eskolan zegoen psikomotrizitatean espezializatua zegoen irakasle baten laguntza izan da behaketa taula sortzerako orduan. Beraz, bere laguntzarekin eta gidaren laguntzaz, behaketa taula sortu zen.

Taula honen funtzionamendua itemetan zehazten den ekintzetan behatzea da. Erantzuna apuntatzerako orduan gurutze bat jarri beharko da 5 puntuazio ezberdinetan: Beti, normalean, batzuetan, ia inoiz eta inoiz.

4.2.1. Diseinua: (5 parametroak)

Lehen esan bezala, behaketa taula egiteko oinarria, Arnáiz eta Bolarínek (2000) beraien gidan zehazten dituzten 5 parametroak kontutan izan dira. Beraz, ondorengo parametroak ezberdindu dira:

- Bere buruarekin duen harremana.
- Besteekin duen harremana.
- Espazioarekin duen lotura.
- Denborarekin duen lotura.
- Materialarekin duen lotura.

Parametro bakoitzaren barruan, hainbat ekintza ezberdin aurkitzen dira, parametro berarekin erlazionaturikoak. Adibidez, bere buruarekin duen harremana parametroaren barruan, tonua, keinuak, martxa, motrizitatea eta trebetasuna agertuko dira. Eta puntu hauen barruan, hainbat galdera; hala nola, bakarrik jokatzen duenean erlaxatuta dago?, oreka onarekin ibiltzen du?, kulunka jolasean sartzen da? eta abar. (*1. Eranskinean ikusi daiteke*)

Guztira 61 item zehaztu dira, bistartzeko zailak ez direna, eta oro har psikomotrizitate klase batean eman daitekeen ekintza guztiak behatzeko laguntzen duena. Horrela, helburua irakasleei hainbeste kostako ez zaien taula irakurtzea izango da eta psikomotrizitatean ematen diren ekintzak erraz identifikatu eta behatzea.

4.3 Prozedura

Ikerlan hau aurrera eramateko, 5. Urteko psikomotrizitate saioko irakaslearekin hitz egin zen eta berarekin saioen behaketak ostiraletan egitea zehaztu zen. Zehazki, ordu beteko 5 saio izan dira.

Behaketa egiteko, irakasleak ohiko saioak aurrera eramaten zituen. Ohiko saioek ondorengo egitura izaten zuten:

Lehenik eta behin, gelako arauak errepasatzen ziren, hau da, "Minik ez egin eta ez jaso" eta danborra bigarren aldiz jotzen denean, jasotzeko ordua iristen dela gogoraraztea. Danborrak jotzen duen lehenengo aldia 5 minutu geratzen direla abisatzeko da. Ondoren, motrizitate eremuan edo jolas sinbolikoaren eremuan egoten dira jolasten edo esperimintatzen. Danborra jo ondoren, pixka bat jasotzen dute eta irakasleak ipuin bat irakurtzen die. Gero jasotzen amaitzen dute, eta behin dena jasota, haur bakoitzari orri

zuri bat ematen die, aretoan egiten aritu direna marraztu dezaten. Momentu honetan, saioan zehar bizi izan dutena irudikatzen dute.

Behaketa taula, saioan zehar betetzen zen, behaketa zuzenaren bitartez eta umeak behatua zirela konturatu edo jakin gabe. Modu honetan, haurren arreta ez erakartzea bilatzen zen, haurrak lasaiago egoten zirelako jolasean edo esperimentatzen.

5- ESKU HARTZEAREN BALORAZIOA

Behin behaketa taula pasata eta datuak jaso eta gero, honen balorazioa egingo da. Balorazioa egiteko, psikomotrizitatean espezializatutako irakaslearen laguntza izan nuen. Nik nire balorazioa adierazi nion, eta berarekin hitz eginez feedback moduko bat egin genuen, eta nahiko ideia eman zizkidan balorazioa egiteko.

Oso garrantzitsua da behaketa taula garatzeaz gain, honen egokitasuna eta erraztasuna baloratzea. Atal hau bi zatitan banatuko da, lehenengo, esan bezala, taularen balorazio edo ebaluazioa egingo da eta bigarrenik hobetu daitezkeen alderdiekin bukatuko dugu.

5.1 Behaketa taularen balorazioa

Lehenik eta behin, esan behar da behaketa taula hau psikomotrizistak ez diren irakasleei laguntzeko helburuarekin egin dela. Horrela, taula honi esker, parametro idatziak jarraitu ahal izango dituzte eta haurrak errazago behatuko dituzte. Taularen balorazioa egiteko helburu hau betetzeko garrantzitsuak izan diren bi alderdietan zentratu nahi izan da; lehenik tresnaren erabilgarritasunean eta bigarrenik kontzeptuen egokitasuna.

→ Erabilgarritasuna:

1. Behaketa taula garatzerako orduan datuak batzeko erraztasuna bilatu da. Hau nahiko ondo planteatu dela pentsatzen dugu, izan ere landutako parametroak ondo zehaztuta eta zuzenki behatu daitezkeenak direlako.
2. Puntuazioa ematerako orduan, Arnáiz eta Bolarínek (2000) 4 puntuazio erabiltzen zituzten, baina behaketa taula honetan 5 puntukoa ezarri da. "Batzuetan" puntua sartu nahi izan da, normalean eta ia inoiz puntuen

artean beste puntu bat egotea komenigarria ikusten zelako. Bost puntu egotea egokia izan dela esango genuke, horrela ebaluazio zabalagoa egin ahal izan da eta zehaztasun gehiago egon daiteke.

3. Behaketa taularen luzerari dagokionez, luzeegia dela antzeman da. Honen ondorioa izan da, hiru haurren ekintzak soilik behatu ahal izan direla, izan ere ordubeteen ume guztien datuak biltzea konplikatu egin da.

4. Bestalde batetik, item batzuetan agertzen den informazioa errepikatu egiten dela antzeman dugu.

5. Item batzuk ez dira oso argia eta informazioa ez da erraz ulertzekoa, beraz hauek egokitu beharko lirateke.

6. Formatuari dagokionez, behaketa taula honetan ezin duzu haur bat baino gehiago ebaluatu, puntuatzeko dauden laukitxoetan ez dagoelako tarte handiegirik haur guztien informazioa apuntatu ahal izateko. Horregatik, oso zaila izango litzateke hiru haur baino gehiago ebaluatzea.

→ Kontzeptuen egokitasuna:

7. Punturik garrantzitsuenetako bat, behaketa taularen zehaztasuna da, hau da, trebetasunaren ebaluazioa zehatza den ala ez. Behaketa taula honetan, orokorrean trebetasunak ondo azalduta daudela esango genuke, baina oso orokorrak geratzen diren item bat identifikatu da. Hori moldatu eta birformulatu egin beharko lirateke.

8. Behaketa taula hau, bost urteko haurrentzat egin dago. Item gehienak adin tarte horretara egokituta daude, baina item batzuk ez dira adinari egokitzen, hala nola, "Oreka onarekin ibiltzen da", "Ibiltzeko erraztasuna

du", "Jaikitzen daki", "Erortzen daki", "Korrika egiten du", "Korrika egiteko erraztasuna du" edo "Salto egiten du bere buruaren gainean", besteak beste.

9. Behaketa taulan adierazpen motorraren fasean eman daitezkeen ekintza ezberdinak hartzen dira kontutan, bai motorrak baita sinbolikoak ere. Puntu horiek oso garrantzitsuak dira psikomotrizitatean eta garrantzitsua da behaketa taulan sartzea, ebaluaketa ona izan dadin.

5.2 Behaketa taula hobetzeko alderdiak

Aurreko puntuan egindako balorazioa kontuan hartuta, behaketa taula hobetzeko alderdi ezberdinak antzeman daitezke. Proposamena balorazioaren puntu berdinak jarraituko dituzte aurkitutako arazoei irtenbide bat emateko asmoz:

BEHAKETA TAULAREN BALORAZIOA	BEHAKETA TAULA HOBETZEKO ALDERDIAK
1. Behaketa taula garatzerako orduan datuak batzeko erraztasuna bilatu da. Hau nahiko ondo planteatu dela pentsatzen dugu, izan ere landutako parametroak ondo zehaztuta eta zuzenki behatu daitezkeenak direlako.	
2. Puntuazioa ematerako orduan, Arnáiz eta Bolarínek (2000) 4 puntuazio erabiltzen zituzten, baina behaketa taula honetan 5 puntukoa ezarri da. "Batzuetan" puntua sartu nahi izan da, normalean eta ia inoiz puntuen artean beste puntu bat egotea komenigarria	

<p>ikusten zelako. Bost puntu egotea egokia izan dela esango genuke, horrela ebaluazio zabalagoa egin ahal izan da eta zehaztasun gehiago egon daiteke.</p>	
<p>3. Behaketa taularen luzerari dagokionez, luzeegia dela antzeman da. Honen ondorioa izan da, hiru haurren ekintzak soilik behatu ahal izan direla, izan ere ordubeteen ume guztien datuak biltzea konplikatu egin da.</p>	<p>3. Behaketa taula laburragoa egitea. Informazio errepikakorra ematen duten itemak eta adinari egokiak ez diren itemak ezabatuz. Edo item batzuk kendu, oso orokorrak direnak, eta taula zehatzago bat egin.</p>
<p>4. Bestalde batetik, item batzuetan agertzen den informazioa errepikatu egiten dela antzeman dugu.</p>	<p>4. Errepikatzen diren itemak ezabatu beharko lirateke, hala nola, "objektu batekin dabil" itema. Izan ere, badago "Objektuak trebetasunez manipulatu dituzte" itema eta bertan haurra objektuekin ibiltzen denaren informazioa ematen du jada.</p>
<p>5. Item batzuk ez dira oso argia eta informazioa ez da erraz ulertzekoa, beraz hauek egokitu beharko lirateke.</p>	<p>5. hala nola "denak jolasean daude", hau izan beharko litzateke, "beti haur berberekin jolasten ari da", horrela hobeto ulertuko litzateke itema. Bestetik, behaketa taulan zehar, "ihes egiten du" esamoldea erabiltzen da item ezberdinetan, baina ulertzerako orduan zailtasunak egon daitezkeela identifikatu da, nahastu egiten duelako. Itema aldatu beharko litzateke eta adibidez, "sentsorimotor espaziotik ihes egiten du" esaten duen itema, "sentsorimotor espazioa bakarrik erabiltzen du"</p>

	itemarengatik aldatu beharko litzateke.
6. Formatuari dagokionez, behaketa taula honetan ezin duzu haur bat baino gehiago ebaluatu, puntuatzeko dauden laukitxoetan ez dagoelako tarte handiegirik haur guztien informazioa apuntatu ahal izateko. Horregatik, oso zaila izango litzateke hiru haur baino gehiago ebaluatzea.	6. Aurretik esan bezala, behaketa taula bertikalean egotea ume guztien informazioa hartzea oztopatzen du, beraz taula horizontalean jarri beharko litzateke, eta ikasle bakoitzaren izena horizontaleko zutabeetan sartu, horrela item bakoitzarentzako ikasle bakoitzaren informazioa egongo da.
7. Punturik garrantzitsuenetako bat, behaketa taularen zehaztasuna da, hau da, trebetasunaren ebaluazioa zehatza den ala ez. Behaketa taula honetan, orokorrean trebetasunak ondo azalduta daudela esango genuke, baina oso orokorrak geratzen diren item bat identifikatu da. Hori moldatu eta birformulatu egin beharko lirateke.	7. Esan dugu moduan, oso modu orokorrean geratzen diren item bat dago: "altueratik salto egiten du laguntzarekin". Zehaztu beharko litzateke zein altueratik egiten duen, izan ere, altuera ezberdinak egon daitezkeelako (kasu honetan 3 zeuden) eta horrek informazio garrantzitsua ematen digulako. Moldapena hau izango litzateke: "altuera handienetik salto egiten du laguntzarekin". Horrela zehatzagoa izango litzateke eta haurra hobeto ebaluatu ahal izango litzateke.
8. Behaketa taula hau, bost urteko haurrentzat egin dago. Item gehienak adin tarte horretara egokituta daude, baina item batzuk ez dira adinari egokitzen, hala nola, "Oreka onarekin ibiltzen da", "Ibiltzeko erraztasuna du", "Jaikitzen daki", "Erortzen daki", "Korrika egiten du", "Korrika egiteko erraztasuna	8. Adin tarteari egokitzen ez diren itemak antzeman dira behaketa taulan eta batere informaziorik ematen ez dutena, duten adinarengatik, horregatik item hauek ezabatzen dira.

<p>du" edo "Salto egiten du bere buruaren gainean", besteak beste.</p>	
<p>9. Behaketa taulan adierazpen motorraren fasean eman daitezkeen ekintza ezberdinak hartzen dira kontutan, bai motorrak baita sinbolikoak ere. Puntu horiek oso garrantzitsuak dira psikomotrizitatean eta garrantzitsua da behaketa taulan sartzea, ebaluaketa ona izan dadin.</p>	

6- ONDORIOAK

Atal honetan, aurreko lan guztiko ondorioez hitz egingo da, bai psikomotrizitatearen eta bai behaketa taularen garrantziaz.

6.1 Lanaren ondorioak

Gradu Amaierako Lan honetan hasieran azpimarratu dudan bezala, gaur egun, oso garrantzitsua da haurren motrizitatea, eta oso garrantzitsua da hurrei motrizitate ona izaten laguntzen jakitea. Hasieran, Vizcarrak ondo esan duen bezala, psikomotrizitatearen helburu garrantzitsuenetakoak norbera ezagutzea eta onartzea, portaera (jokabidea) egokitzea eta norberaren autonomia garatuz bizitza sozialean ardurak eskuratzeko gaitasunak hobetzea dira.

Psikomotrizitateari esker, haur askok gehiago ezagutzen dute beren burua; hau da, zer egiteko gai diren jakiten hasten dira, eta hori oso positiboa da haientzat. Bestalde, hauek dira gehien landu daitezkeen helburuak, baina hauetaz gain, beste asko ere badaude, hurrekin lan egiteko garrantzitsuak izan daitezkeenak, adibidez, gainerako hurrekin edo helduekin izan dezaketen komunikazioa. Azken finean, haurrak psikomotrizitate gelara joaten direnean, beraientzat, gelan egotetik erabat urrun dago. Leku horretan mugitu, jolastu, salto egin, korrika egin eta abar egin dezakete, eta, horrela, pixka bat hustu. Norbera izateko eta eskura dituzten objektuen multzo batekin esperimentatu ahal izateko behar duten espazioa da. Aske sentitzen dira eta horrela sentitzean, benetan diren bezala jokutzen dute eta hobeto adierazten dituzte egunean edo asteen senti ditzaketen sentimendu eta emozio guztiak.

Bestalde, motrizitate on hori izateko, Aucouturierren metodoa umeekin egiteko osoenetako bat iruditzen zait. Metodo hau, lehen jarri dudan bezala, Perezen (2019) arabera praktika psikomotorreko sesio batean, 5 fase gainditu behar dira (Sarrera, adierazpen motorra, istorioaren fasea, adierazpen grafikoa eta irteera). Oso garrantzitsua da fase horiek urratsez urrats jarraitzea, oso garrantzitsuak dira bakoitzak bere helburuak baitituzte. Horregatik, oso saio osoa iruditzen zaidala hurrekin egiteko uste dut, eta oso hezitzailea. Azken finean, metodo honek haurarentzako alderdi asko lantzen ditu eta ondo dago kontrol bat eramateko. Lehen esan bezala, psikomotrizitate gelan hurrek gauza asko esperimentatu eta adieraz ditzakete beren keinu edo ekintzekin, baina saioaren amaieran, egin dutena marrazten dutenean, beste modu batera adieraz

dezakete. Haur batzuek ere bai, nahiago izan dezakete metodo hori, erosotasunagatik, edo hobeto sentitzen direlako marrazten, ekintza egiten baino.

Aurreko guztia garrantzitsua da, baina hori guztia ebaluatzea gauza batzuk hobetzeko gakoa da. Hau da, lan honen helburua haurrak psikomotrizitate saio batean ebaluatzea da eta horretarako behaketa taula bat sortu dut. Taula horri esker, irakasleek beren ikasleak modu errazagoan ebalua ditzakete. Horregatik, oso garrantzitsua da behaketa taula zuzen bat egitea eta, horrela, haurrak behar bezala ebaluatu ahal izatea.

Behaketa taula egiten hasi nintzenean, pixka bat galduta sentitzen nintzen, azken batean ez nuen inoiz antzeko taula bat egin eta pixka bat kostatu zitzaidan. Baina lanean zehar azaldu dudan moduan, psikomotrizista baten laguntzaz behaketa taula bat egitea lortu nuen haur batzuk ebaluatu ahal izateko, kasu honetan hiru haur izan ziren. Lehen saioan, kosta egin zitzaidan pixka bat hiru umeei bakarrik erreparatzea eta taulako guztia apuntatzen egotea. Saioaren amaieran ere konturatu nintzen ez nuela amaitzeko denborarik izan, eta etxean bukatu behar izan nuen. Baina beste saioetan, behaketa taula zein luzea zen jakinda, hobeto antolatzen saiatu nintzen, orduan amaitu ahal izateko.

Lan honen ondorioarekin amaitzeko, esan behar dut lan honi esker ikasi dudala eta are gehiago konturatu naizela zein garrantzitsua den psikomotrizitatea eta hura ondo ebaluatzea. Era berean, esan eta azpimarratu nahi dut, psikomotrizitatea ebaluatzeko modu gehiago daudela eta guztiak oso baliotsuak direla. Nik behaketa taula aukeratu izanak ez du esan nahi garrantzitsuena denik, baizik eta nire kasuan, hobeto etorri zaidana izan dela, lan honetarako nahi nuena ebaluatzeko.

7- HOBEKUNTZA ETA ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK

Bukatzeko, zenbait hobekuntza proposatuko ditut gai honen inguruan, etorkizunerako. Gradu amaierako lan honi esker, eta haur eskola batean lan honen zati bat praktikan jartzeari esker, zein dibertigarria zen psikomotrizitate gela batean berriro egotea esperimentatu dut berriz ere. Aurten, Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidezko minorra egin dut, eta minor horri esker, gorputzaren eta aurpegiaren mugimenduek duten garrantzia ikusi ahal izan dut eta hau oso garrantzitsua da psikomotrizitatea lantzeko orduan. Bestetik, informazio hori guztia psikomotrizitate gelara eraman ahal izan dut, eta ikusi nola jokatzen duten hurrek horrelako ingurune batean.

Halaber, lan honi esker, haur bat ebaluatzea zein garrantzitsua den ikusi eta egiaztatu ahal izan dut, alderdi batzuk hobetzen lagundu ahal izateko. Kontuan izan behar da ebaluazioa egitea uste baino garrantzitsuagoa dela. Hor ikus dezakegu haurrak nola eboluzionatzen duen eta gauza batzuetarako laguntza behar duen ala ez. Horregatik, lan honetan garrantzi handiena eman nahi izan diot ebaluazioari, gai honetan landu beharreko faktore garrantzitsuenetako bat iruditzen baitzait.

Lanean zehar esan dudana bezala, behaketa taula laburragoa eta zehatzagoa izan beharko litzateke, haur gehiago eta ordu betean ebaluatu ahal izateko.

Beste hobekuntza bat izan liteke irakasle gehiagok feedbacka eta iritziak ematea behaketa taula hobetu ahal izateko. Horrela, ikuspuntu gehiago izango lituzke eta behaketa taula osatuagoa egin liteke. Azken finean, irakasle bakoitzak bere iritzia du eta iritzi horiek guztiak kontuan har daitezke behaketa taula egiteko.

Beste hobekuntza bat ere izan liteke haur gehiago behatzea eta adin desberdinekoak izatea; horrela, adin eta haur ezberdinetan egon daitezkeen aldeak ikus genitzake, eta horrela informazio gehiago izan genezake gai honi buruz.

Bestalde, beste hobekuntza bat izan liteke haien artean haur desberdinagoak bilatzea edo aukeratzea; azken finean, nik aukeratu ditudan hiru profilak oso antzekoak dira eta ez da alde handirik ikusten haien artean. Profil desberdinak aukeratzeari esker, haur batetik bestera dagoen aldea ikusi eta nabarituko da.

Bukatzeko, psikomotrizitateari merezi duen garrantzia eman nahi diot, eta merezi duen bezala baloratu. Espazio horretan haurrak aske sentitzen dira eta beraiek izan daitezke, eta hori da garrantzitsuena. Praktikan egon naizen ikastetxeetan ikusi dudanez, haurrak astean behin edo bitan joaten dira psikomotrizitate gelara, haurren adinaren arabera. Nire ustez, gehiago joan beharko lukete psikomotrizitate gelara; azken batean, askatasunez adierazten diren leku bat da, eta ongi dago haien garapenerako.

8- ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Curriculum eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Vitoria-Gasteiz, 2016ko urtarrilaren 15a, 9. zk., 1-50: <https://bit.ly/2v1MmWL>

Arnáiz Sánchez, P. & Bolarín Martínez, M^a Jose (2000). *GUÍA PARA LA OBSERVACIÓN DE LOS PARÁMETROS PSICOMOTORES*. Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado, nº 37, pp. 63-85

Abad Molina, J. (2008). *El Placer y el Displacer en el Juego Espontáneo Infantil/Pleasure and Displeasure in Children's Spontaneous Play*. Arteterapia, 3, 167-188.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2722674>

Aucouturier, B. (1994). "El itinerario de la práctica psicomotriz". Seminario de Psicomotricidad. Santa Cruz de Tenerife. ACAPSI.

Aucouturier, B. (1996, 19-21 de septiembre). La psicomotricidad, un concepto de maduración, una práctica, un sistema de actitudes [ponencia]. Psicomotricidad, Marburgo, Alemania

Aucouturier, B. (2004). *Los fantasmas de acción y la práctica psicomotriz* (Vol.7) Graó

Bolarín Martínez, M. J. (1998). Elaboración de una guía de observación de los parámetros psicomotores. Universidad de Murcia.
<https://digitum.um.es/digitum/bitstream/10201/19827/1/TMJBM1de3.pdf>

Chokler, M. (1999). *Acerca de las práctica psicomotriz de Bernard Aucouturier*. Buenos Aires. Ediciones Ariana.

Chokler, M. (2011-02-01) *Haur txikien mugimenduaren genesis*. Hik Hasi. Honako webgune honetatik berreskuratua:
<http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20110201/mirtha-chokler-haur-txikien-mugimenduaren-genesia>

De la Flor Baleztena, F. (2014). Aucouturier metodologia psikomotrizitate gelan: teoria eta praktikaren alderaketa. *Gradu bukaerako lana*.

<https://academica-e.unavarra.es/xmlui/bitstream/handle/2454/13963/TFG14-Ginf-DELAFLOR-67198.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Fajardo, M. (2007) Algunas consideraciones sobre psicomotricidad y las necesidades educativas especiales (NEE).

<https://www.efdeportes.com/efd108/psicomotricidad-y-necesidades-educativas-especiales.htm>

García, P., & Geovani, M. (2018). La psicomotricidad en la educación preescolar. *UNIVERSIDAD NACIONAL DE TUMBES FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES ESCUELA PROFESIONAL DE EDUCACIÓN :*

<http://repositorio.untumbes.edu.pe/bitstream/handle/UNITUMBES/854/PRECIA%20DO%20GARC%c3%8dA%2c%20MILUCY%20GEOVANI.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Gifre, M. & Esteban, M. (2012). Consideraciones educativas de la perspectiva ecológica de Urie Bronferbrenner. *Contextos educativos. Revista de educación*, (15), 79-92.

Lapierre, A. (2001). “La formación personal en la Educación Psicomotriz”. Ponencia realizada en el Máster de Psicomotricidad de la Universidad de La Laguna. Tenerife.

Mendiara Rivas, J. (2008). La Psicomotricidad Educativa: un enfoque natural. *Revista Interuniversitaria de Formación del profesorado*, (62), 199-220.

Perez, N. (2019-10-16). *Psicomotricidad relacional VS Psicomotricidad dirigida*. La sala de psico. Consultado el:

<https://entreactividadesinfantiles.com/2015/08/12/practica-psicomotriz-aucouturier-que-es-para-que-sirve-y-como-es-una-sesion/>

Polentinos Martínez, J. C. (2006). Psikomotrizitatearen erreferentzia istoriko txiki bat. *JAKINGARRIA*, 59. ORR.12-15

<https://www.mondragon.edu/documents/20182/61440/jakingarriak-59.pdf/4546d411-b6f4-4106-aa37-5411ebb41ad8>

Polentinos Martínez, J. C. eta Herran Izagirre, E. (1989). Hezkuntz praktika psikomotriz. *JAKINGARRIAK*. Orr. 9
<https://www.mondragon.edu/documents/20182/61440/JAKINGARRIAK+14-azaroa1989.pdf/08f5b43e-77ff-4f73-bfef-d269578ed36a>

Real Academia Española (2019). Webgune honetatik berreskuratuta (2020-01-12):
<https://dle.rae.es/psicomotricidad?m=&e=>

Rubio, A., & García Arroyo, M. J. (1993). La observación psicomotriz como técnica de evaluación en la etapa de la educación infantil.
https://gredos.usal.es/bitstream/handle/10366/69081/La_observacion_psicomotriz_como_tecnica_.pdf?sequence=1&isAllowed=y

Ruiz de Velasco, A. y Abad, J. (2011). El juego simbólico. Barcelona: Graó.

Sánchez, J., & Llorca, M. (2008). El rol del psicomotricista. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 22(2), 35-60.

Tejerina, I. (1994). Dramatización y teatro infantil. Dimensiones psicopedagógicas y expresivas. Madrid: Siglo XXI.

Urresti Ortiz, M. (2017) PSIKOMOTRIZITATE ERLAZIONALA: AUKERA BERDINTASUNERAKO eta EMOZIOEN HEZKUNTZA. *Hik Hasi*. Honako webgune honetatik berreskuratuta:
http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2018/03/1522233138-MAPI-17:18%20irailean.pdf

Vizcarra Morales, M. T. (2007). PSIKOMOTRIZITATEA ETA HAUR HEZKUNTZA. Ed. Vizcarra Morales, M. T. *Garapen psikomotorra Haur Hezkuntzan (0-6 urte)*. Euskal Herriko Unibertsitateko publikazioa, Leioa-Bizkaia.

9. ERANSKINAK:

Puntu honetan, psikomotrizitate gelan 5 urteko haurrak ebaluatzeko erabili zen taula ikusi ahal izango da.

1. Eranskina:

Psikomotrizitatea behatzeko fitxa (5 urteko haurrentzako)

BERE BURUAREKIN DUEN HARREMANA		BETI	NOR MALE AN	BATZU ETAN	IA INOIZ	INOIZ
TONUA	Bakarrik jokatzeko duenean erlaxatuta dago					
	Zailtasunen aurrean erreakzionatzen du					
	Tentsio-uneetan mugimendu errepikakoetara jotzen du					
KEINUAK	Keinu egokiarekin erreakzionatzen du emozio-uneetan					
MARTXA	Oreka onarekin ibiltzen du					
	Ibiltzeko erraztasuna du					
	Segurua da ibiltzerako orduan					
	Jaikitzen daki					
	Erortzen daki					
	Desoreka jolasetan sartzen da					
	Kulunka jolasetan sartzen da					
	Irristatze jolasetan sartzen da					
	Korrika egiten du					
	Korrika egiteko erraztasuna du					
MOTRIZITATEA	Salto egiten du bere buruaren gainean					
	Altueratik salto egiten du laguntzarekin					

	Altueratik salto egiten du laguntzarik gabe					
	Badaki oin edo hanka baten gainean eusten					
	Txiri-bueltak ematen ditu					
	Bere ekintzetan, mugimenduak koordinatuak dira					
TREBETASUNA	Objektuak trebetasunez manipulatzeko dituzte					
BESTEekin DUEN HARREMANA						
HAUR BERDINEKIN	Denak jolasean daude					
	Bertan badaude, lagundu egiten dute					
	Bertan badaude, ez dute laguntzen					
	Joko horretan eraso egiten du					
	Eztabaiden aurrean, joan egiten da					
	Estrategiak erabiltzen ditu beste pertsona manipulatzeko eta horrela nahi duena egiteko					
	Besteen estrategiek erabiltzen dute					
BERE LAGUNAK AUKERATZEN DITU	Gustuko lagunak ditu bere jolasetarako					
	Lagunek nahi dutena egiten du					
	Paper ezberdinak ditu					
HELDUAREKIN DUEN HARREMANA	Helduarekin dago					
	Naturarekin laguntza eskatzen du					
	Heldua erabiltzen du bere zailtasunak konpon diezazkion					
	Helduarengana jotzen du laguntza emozionala					

	behar duenean					
	Heldua saihesten du					
ESPAZIOAREKIN DUEN LOTURA						
JOAN-ETORRIAK	Espazio gustukoenak ditu					
	Sentsorimotor espaziotik ihes egiten du					
	Sinboliko espaziotik ihes egiten du					
	Objektu batekin dabil					
	Bidean entretenitzen da					
	Bilatzen den objekturantz doa					
	Sarritan helburuz aldatzen da joan-etorrietan					
	Bere joan-etorrietan argia da					
	Inguratzen du					
	Ihes egiten du erdiko espaziotik					
	Espazio sinbolikoak eraikitzen ditu					
	Espazio sinbolikoak materialarekin betetzen ditu					
Partekatzen du bere espazio sinbolikoa						
DENBORAREKIN DUEN LOTURA						
	Ekintzen iraupenean jarraitzen du					
	Ekintzaz aldatzeko gai da					
	Ekintzak bukatzen daki					
	Ekintzak denboran zehar antolatzen ditu					
MATERIALAREKIN DUEN LOTURA						
	Objektuak erraz manipulatzeko dituzte					

	Funtzio sinbolikoa ematen die objektuei					
	Objektuak erabiltzen ditu eraldaketa sinbolikoa emateko					
	Irudimena lantzen du					
	Objektu gogokoenak ditu					
	Etiketatu objektuak ekartzen ditu					
	Erabiltzen ditu objektuak besteekin erlazionatzeko					
	Badaki partekatzen					